


# B

BARREN

# Luziano, artista bidaiaria

TOKIKOM





# KONFIANTZAN EN CONFIANZA



# ikastola

## elgoibar ikastola

elgoibar@ikastola.net  
943 744441  
[www.elgoibarikastola.eu](http://www.elgoibarikastola.eu)



*aurre-matrikulazioa*  
urtarrilaren 31tik  
otsailaren 11ra



Aurkezpen bilera irekia: urtarrilaren 31n, 19:00, IKASTOLAN



## Pentsio eskubide duina

Krisialdiaren aitzakian, bankuek Europak egin behar duena agindu eta estatuek guztia onartzen dute: laneko eskubideak kendu, soldatak murriztu, lan merkatua erreformatu eta gastu publiko eta soziala mugatu. Hau da, krisia sortu zutenek eskaintzen duten irteera. Pentsio sistema berriak pentsioak %20-25 murriztea ekarriko du, eta luzera begira, hiru bloketan banatuko dira pentsiodunak: ondo kobratzen dutenak, erdizka kobratzen dutenak eta miseria kobratuko dutenak. Hau da, plan pribatuak egiten dituztenak, urte askoan lan egin dutenak edo eta prekaritatean bizi direnak.

Nafarroa eta Gasteizko parlamentuek kopia egiten dituzte Madrildik datozen agindu eta erabaki guztiak. Gainera, PP, PSOE-UPN-PNVk bat egiten dute erabaki sozial hauek hartzeko orduan.

Erreforma honen helburua pentsio-sistema pribatizatzea da. Banketxeentzat sekulako negozioa izango da, baina prekarietatean bizi direnak ezin izango dira sistema berri honetara moldatu.

Ikusten da sistema pribatua dagoela krisian, ez sistema publikoa.

95ean esaten zuten politikariek 2005ean gizarte segurantzak defizita izango zuela; hala ere, gaur arte superabita izan du.

2004an, 6.878 milioi euro zeuden plan pribatuetan, eta gaur 6.094 milioi euro daude. Bistan da salbatu nahi dena sistema

pribatua dela; horixe exijitu dute bankuek, eta horixe ematen zaie.

Beste eredu baten aldeko jarduera indartu behar da, Euskal Herrian gehiengo sozial horren aldeko erabaki politiko eta sozial berria sortzeko.

Euskal Herriak bere etorkizun ekonomiko eta sozialaren jabe izan behar du, etorkizun justuagoa eta unibertsalagoa lortzeko; horretarako, euskal esparru propioa behar dugu, geure etorkizunaren jabe izateko.



Sabin Zenarruzabeitia

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitetz gurekin harremanetan: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**“Bistan da salbatu nahi dena sistema pribatua dela; horixe exijitu dute bankuek, eta horixe ematen zaie”**

**BETE DUZU ALBISTEAK  
E-POSTAZ  
JASOTZEKO HARPIDETZA?**

**EGUNERO  
BIZPAHIRU  
ALBISTE JASOKO  
DITUZU!**

**www.elgoiBARREN.net**

Albisteak ePostaz jasotzeko

Izena

ePosta

Harpidetu

Harpidetza eten

Harpidetul

**Egin  
klik  
eta  
ikusiko  
duzu**

**ELGOIBARKO IZARRA**  
KULTUR ELKARTEA

# LUZIANO RUIZ POVEDA

MARGOLARIA



Luziano, 1960an Parisko Montmartren marrazten.

## “Margotzen jarraitzen dut, eta inoiz baino inspiratuago nago”

**79 urte ditu Luzianok, eta ispilura begiratzean “zein dek hori?” galdetzen dio bere buruari. Abenturaz beteriko bizimodua izan du margolari elgoibartarrak, eta hori guztia jaso du *Luziano* izeneko liburuan. Gerratik ihesi, Parise-ra iritsi zen 4 urterekin, eta han, Bigarren Mundu Gerrak harrapatu zuen. Oso elgoibartarra sentitzen dela adierazi du Luzianok, baina aldi berean, frantsesa ere bai. Frantzian bizi izan zenean, bat gehiago zen han, eta kultura frantsesa izugarri gustatzen zaiola aitortu du. Madril eta Zarautz artean bizi da gaur egun, eta ahal duenean Elgoibarrera ere etortzen da bisitan.**

**Zure bizitzari buruzko liburua kaleratu duzu. Nola bururatu zitzaizun liburua idaztea?**

Nire bizitzari buruzko istorioak kontatzeko ohitura handia daukat, eta Elgoibarko lagun batek esan zidan hori guztia liburu batean jasotzeko. Egia da jende askori buruzko liburuak irakurri ditudala, eta ideia ona iruditu zitzaidan. Bizimodu originala izan da nirea, desberdina. Idazteari ekin nion, eta abentura mordoska bat bildu ditut. Haurtzaroko kontuekin hasi nuen liburua, garai hartako Elgoibar nolakoa zen kontatuz, eta horren ondoren, margotzeak eman didan guztia kontatu dut.

**Nolakoa zen zure haurtzaroko Elgoibar?**

Liluragarria zen. Egungoarekin konparatuta desberdina zen, beste garai batzuk ere bazirelako. Herri nekazaria zen Elgoibar. Santa Klaran bizi nintzen, eta baserritarrak ikusten nituen astoan kalera jaisten. Izugarri gustatzen zitzaidan. Baseri munduak beti erakarri izan nau, eta San Migel auzoko baserrietara sarri joaten nintzen. Hango usaina eta hango giroa gustuko nituen: behiak, oiloak, baratza... Nire bizitzan ikasi dudana euskara apurra baserri haietan ikasi nuen.

**Umea zinela, baina, Elgoibartik ihes egin behar izan zenuen.**

5 urte nituen 36ko Gerra hasi zenean. Bilbora eraman gintuzten, eta

## “Bilboko Korteetan debutatu nuen margolari modura”

*Habana* itsasontzian ume bakoitza leku batera bidali zuten. Nire anaiak eta ni, Frantziara. Oso umea nintzen, eta ez nintzen konturatzen benetan zer ari zen gertatzen, hortaz, abentura bat balitz bezala bizi nuen. Oleron irlara iritsi ginen, eta handik, trenez Parisera. Familia frantsesetan hartu gintuzten, eta niri oso familia ona tokatu zitzaidan. Ez zeukaten seme-alabarik, eta adopzioan hartu nahi ninduten. Aita erusiarraren, medikua, oso gizon ona. Judua zen, eta Komunismoaren ideiak Europan zabaltzea zen bere nahia. Nik izugarri maite nuen. Dirutza handia zeukaten, eta etxe eder batean bizi ginen, Parisko erdigunean. Hango etxean ikusi nuen estreinakoz komuna! Ur beroa geneukan, neskamea, udaldiko etxea... Eskolara joaten hasi nintzen, eta primeran ikasi nuen frantsesez hitz egiten. Egia esan, oso gustura bizi izan nintzen han.

### **Ez zenuen, baina, denbora gehiegi egin Parisen.**

Ez. Gerratik ihesi joan nintzen, eta beste gerra batek harrapatu ninduen Parisen. Bigarren Mundu Gerra hasi zen, eta Alemaniak Frantziari eraso zion. Nire aita harrapatu zuten, eta geroztik ez dugu berari buruz ezer gehiago jakin. Pena handia hartu nuen, niretzako bera zelako nire benetakoa aita. Paris guztia hondatuta zegoen, eta amak eta biok Frantzia guztia zeharkatu genuen aitaren bila. Oso dibertigarria egin zitzaidan abentura hura, ez nekielako benetan zer gertatzen zen. Batzuetan oinez joaten ginen, bestetan furgoneta batean, trenez... ez genuen jakiten egun bakoitzean non egingo genuen lo, baina ez nintzen gertatzen zenaren jakitun. Alemaniaren mugaraino iritsi ginen, ia Estrasburgoraino. Gau batean boten hotsa entzuten hasi ginen, sekulako zarata. Alemaniar tropak ziren, eta Frantzia erasotzera zetozen. Orduan bai sentitu nuela beldurra. Denok hilko gintuztela uste nuen. Leihotik begiratzen nuen, eta milaka soldadu pasatu ziren. Azkenean, han ez zen ezer gertatu. Denboratxo bat egin genuen etxetik kanpo, eta egoera baretu zenean itzuli egin ginen.

### **Zer dela eta itzuli zinen Elgoibarrera?**

Espainiako Gobernuak gure itzulera eskatu zuen. Hondarribiara iritsi ginen, eta han, ama eta arreba Maria Luisa genituen zain. Ez ni-

tuen ezagutu ere egiten! Lau urte egin nituen Parisen, eta hemengo familiarekin erabat ahaztuta nengo. Trakets jantzitako emakume bat zen ama, eta arreba ere, jantzi handi batzuekin ikusten nuen. Berriz ere Elgoibarko bizimodura ohitu behar izan nuen. Etxe zaharra, hotza... orduko etxe guztiak bezalakoa zen gurea ere. Gainera, frantsesez bakarrik hitz egiten nuen, eta nire jantziak ere Paristik ekarritakoak ziren. Burla egiten zidaten kalean, eta “el francesito” goitizena jarri zidaten. Anaia nagusiaren praka batzuk eskatu

### **Noiz eta nola sortu zitzaizun margotzeko zaletasuna?**

Margotzeko zaletasuna betidanik izan dut, txiki txikitatik. Roman Ezenarro izan zen nire irakaslea, eta harekin ikasi nuen marrazten. Horrez gain, nire kontura margotzeko ekin nion, eta denbora librean margotu egiten nuen. San Bartolome jaietara karikaturak egiten zituen pintore bat etorri zen: Terry, garai hartako karikaturagile onenetakoa. Orduak pasatzen nituen hari begira, eta jendeak ordaintzen zion diruaren kalkulua egiten nuen neure buruan. Lan hura nik ere egin nezakeela pentsatu nuen, eta hilabete batzuetako saiakeren ostean, koaderno eta lapitzak hartuta, Bilborantz abiatu nintzen oinez. Bilboko Korteetara iritsi nintzen, eta herri txiki bateko bizilagun batek sekula imajinatuko ez lukeen giroa aurkitu nuen han. Kabaretak, parranda, emakumeak erretzen... pelikula bat zela uste nuen. Aquí te espero izeneko tabernan hasi nintzen marrazten. Gaur egun, margolari lanetan non hasi nintzen galdezen didatenean, Bilboko Korteetan debutatu nuela erantzuten dut.

### **Bilbon margolari hasi zinen, baina Lekeitio ere herri berezia da zuretzat. Zergatik?**

Lekeitio Carmen ezagutu nuen, gero nire emazte izan dena. Madrildarra zen, eta gurasoekin etorri zen Lekeitiora uda pasatzera. Maitemindu egin ginen, eta berehala ezkondu ginen. Maitasunak Madrileran eraman ninduen. Madrilen, zine-kartelak margotzen nituen, pelikulak iragartzeko kartelak, eta oso ondo ordaintzen zidaten.



Luzianok 2005. urtean egindako lana da ezkerrekoa, eta eskuinekoa, berriz, 2000. urtean Oteizari egin zion erretratua.

**Margoari esker asko bidaiatu duzu, eta Parisera joan zinen berriro.** Bai, liluragarria izan zen Parisko etapa. Ez zen umetan ezagutu nuen Paris, pelikuletako hiria zen. Montmatren margotzen nuen, eta hura zerua zen niretzako. Margotzen egoten nintzen bitartean, modan zegoen musika entzuten nuen batzuetan, eta beste batzuetan, soinu-jole bat gerturatzen zitzaidan musika erromantikoa jotzen. Oso gustura egoten nintzen Parisen, baina ez nituen egonaldi oso luzeak egiten. Joan-etorrian ibiltzen nintzen, Paris eta Madril artean. Dirutza handia irabazten nuen, eta nire lanek arrakasta handia zeukaten. Emazteari esan nion Gasteizen aurkitu ez nuen aberas-tasuna hantxe geneukala.

**Zure ametsa bete zenuen: New York. Zer aurkitu zenuen han?**

Erakusketa bat egitera joan nintzen, eta bereziki, nongoa nintzen erakutsi nahi nuen. Euskal Herriko eta Parisko koadroak eraman nituen. Euskal Herrikoen artean ez nuen bat bera ere saldu. Han ez zituzten baserriak eta baserriarrak ezagutzen, eta ez nuen arrakastarik izan lan horiekin. Pariskoak, ordea, denak saldu nituen. Paris modan zegoen garai hartan.

**Zure bidaien artean Maroko oso berezia izan dela aipatzen duzu. Zergatik?**

Oso gustura egon nintzelako. Margolari bezala bidaiatzea ez da turista bezala joatea modukoa. Pintzelak eta mihisea ikusten dutenean, jendea hitz egitera gerturatzen da, eta herrialde berri bat ezagu-

*Luziano Tetuanen (Maroko) marrazten.*



**“Orain ez naiz irteten kalera margotzera, nire estudioan margotzen dut, lasai-lasai”**

tzeko, bertako jendearekin harremana izatea ezinbestekoa da. Hala ere, pertsonak marraztea ez zen erraza: pertsona bat marraztean arima lapurtzen diezula uste dute, eta ez zaie gustatzen. Baina, oro har, jende oso jatorra aurkitu nuen.

**Leku zatarrak ere aurkituko zenituen zure bidaietan, ala?**

Bai, Irak ez zitzaidan batere gustatu. Ez dakit zeren bila joan nintzen, baina zatarra da, benetan. Sekulako hanka-sartzea egin nuen.

**Zein lekutara joango zinateke, gaur egun?**

Siriara. Lehengo astean telebistan ikusi nuen Siriari buruzko erreportaje bat, eta oso leku interesgarria iruditu zitzaidan.

**Zarautzen ezagutu zenituen bi pertsona aipatzen dituzu liburuan: Xabier Arzalluz eta Jose Mari Arizmendiarieta. Nolako harremana zenuen haiekin?**

Arzalluzekin adiskidetasun polita izan nuen. Politika galeiz ez beste guztiez hitz egiten genuen, eta niretzako oso gizon jatorra zen. Jakintsua eta errespetu handikoa. Erretratu bat egin nion, eta askotan, Getariara joaten nintzenean margotzera, nirekin etortzen zen. Arizmendiarieta, bestalde, nire estudioaren gainean bizi zen. Han pasatzen zuen uda bere familiarekin. Hasieran bere emaztea ezagutu nuen, eta nire abenturak kontatzen nizkien. Bederatzi urtez, uda guztietan etortzen zen nire estudioa, eta aulki batean eserita orduak eta orduak egoten zen niri begira. Harreman oso polita eduki genuen.

**Gaur egun, Madril eta Zarautz artean bizi zara.**

Bai, nireguz Madril pasatzen dut, eta udan Zarautzera joaten naiz. Itsasoa asko gustatzen zait, eta estudioa jartzeko lokal aproposa aurkitu nuen Zarautzen. Itsas ertzean estudio bat edukitzea zen nire ametsa, eta Zarautzek aukera hori eman dit. Margotzen jarraitzen dut, eta inoiz baino inspiratuago nago. Gauza berriak egiten dihardut, eta margoaz gozatzen ari naiz. Pinturan ezinbestekoa da berritzea; ezin zara orain dela 40 urteko gauza berdinak margotzen ibili. Garatzea eta eboluzionatzea da politena eta aberasgarriena.

**Non bilatzen duzu inspirazioa?**

Hori oso pertsonala da. Ideiak aspalditik dauzkat buruan, eta, orain dela hogeitun urteko ideia bat inolako arazorik gabe margotu dezaket. Irudi bat margotzeko ez daukat erretratuak egin beharrik, buruan ematen diot forma. Marrazten gozatzea eta ondo pasatzea da helburua. Orain ez naiz kalera irteten margotzera, garai hura bukatu zen. Gaur egun nire estudioan margotzen dut, lasai-lasai.

**Zein harreman daukazu Elgoibarrekin?**

Gaur egun gutxiago joaten naiz, nire familiakoak dagoeneko ez direlako han bizi. Lehen, urtero joaten nintzen sanbartolomeetan, eta orain ere, udan saiatzen naiz Elgoibar bisitatzen.

## Osakidetzak fakturak banatuko ditu, osasun zerbitzuek zenbateko kostua duten jakiteko. Ondo iruditzen zaizu Osakidetzak erabiltzaileei zerbitzuen kostua jakinaraztea?



**Yolanda Martin**  
35 urte, langabetua

Berdin zait, behar dudanean soilik joaten naizelako medikuarengana. Ebakuntzaren bat egin beharko balidate berdin izango litzaidake zenbat balio duen jakiteak. Badakit jendeak gehiegi erabiltzen dituela Osakidetzaren zerbitzuak, baina fakturak emanda ere, berdin-berdin jarraituko lukete horiek.



**Mertxe Elordi**  
64 urte, aurre-jubilatua

Ez dakit! Beti egon dira zerbitzuen gehiegizko erabilera egin izan dutenak, eta fakturak eman arren, berdin-berdin erabiliko dutela iruditzen zait. Hala ere, ez dago gaizki zerbitzuak zenbateko kostua duen jakitea, denok ere horren jakitun izan gaitezen.



**Aitor Rosario**  
27 urte, garbitzailea

Osakidetzako zerbitzuek zenbat balio duten jakitea baino garrantzitsua da herrian egiten diren obra publikoen kostua ezagutzea. Faktura horiek bidali beharko lituzkete etxeetara, denok jakin dezagun industriagune berri bat egiteak duen kostua, adibidez. Osakidetzarena sinbolikoa da.



**Maria Aranberri**  
32 urte, familia hezitzailea

Ez dut uste horrek ezertarako balioko duenik. Horren atzean beste arazo bat dago, eta zerbitzuak saturatuta egoten jarraituko du. Nire ustez, industria farmakologikoak zenbat diru irabazten duen jakin beharko genuke. Seguru irabaziak gastuak baino askoz handiagoak direla.

## ■ SEMAFOROA



**Txalo bero bat Mugertza kro-seko antolaztaileei:** "Sekulakoa egin duzue aurten ere! Izugarria izan da Mugertza krosa, eta Mintxetara joan ginen guztiok primeran pasatu genuen domekan. Hotz egiten zuen, baina giroa bero-bero zegoen. Ume zein nagusi, denok gozatu genuen atletismoaren jaiaz. Mintxeta taldeko lagunek lan handia egiten dute. Segi horrela, merezi du-eta!"



**Errosario kalea lakarrago jarri dute:** "Bazen ordua Errosario kalea lakartzeko! Oso labaina zen hango lurra, eta euria egiten zue-nean, beldurrez ibiltzen ginen. Poliki bada ere, ari dira herriko kaleak egokitzen, eta hori txalotzekoa da, baina oraindik, gunela-bainkor eta arriskutsu asko daude herrian. Bat aipatzekotan, Loritoneko aldapa aipatuko nuke. Aldapa hori ere lehenbailehen la-kartu beharra dago"



# Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)


**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA**, **ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi  
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio  
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo. INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



## GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Ganorazko frontoia herrian

Jakinekora da Elgoibarko herriak ganorazko frontoi baten beharra duela. Alde batetik, 10 koadroko frontoia behar du izan, frontoiari benetako erabilgarritasuna emateko beharrezkoa baita hori. Bestalde, Euskal Herriko herri gehientsuenetan bezala, frontoia herriaren erdigunean kokatu behar da, herritar guztion eskura, eta ez aparte. Gure herriko kulturaren eraikuntza erakusgarri ere badira frontoiak, eta horregatik, Elgoibarko beste eraikuntza garrantzitsuenen inguruan egon behar du.

Hala, herri erdigunean kokatutako frontoiak behar bati baino gehiagori aurre egiteko aukera emango luke:

1. Lagunak pilota eskolako mutil eta neskek bertan entrenatu eta partidak jokatzeko.

2. Herrian dagoen aterpe gabeziaren alternatiba bat izateko. Batetik, umeen jolasleku, eta bestetik, edozein kultur ekintza, herri-kirol, edota kontzertu egin ahal izateko.

3. Herriko jendeak kotxerik hartu behar ez izateko, palaz edo eskuz jokatzera joatea nahi duen ulean.

4. Elgoibarren, herri pilotazalea eta pilotari asko eman dituen, Euskal Kultura eta Kirola den ESKU PILOTA bultzatzeko. (Ikusi besterik ez dago 2010eko 10bai taldeak plazan antolatutako lagunarteko esku pilota txapelketak izandako oihartzuna).

Eta hori dena posible izan dadin, frontoiak publikoa behar du izan. Onartezina da gaur egun Ikastolako frontoia erabiltzearen ordaindu beharreko diru kopurua.

Legealdi asko dira Elgoibarko Lagunak Pilota Eskolak ganorazko frontoi bat eskatu zuela. Etxegintza izan da herri erdigunean azken urteotan ardatz; bada ganorazko frontoi batentzako ordua!

Bultza dezagun gure kultura eta kirola!

10bai ©

### 2011ko Juan Mugertza krosaren esker ona

Idatzi honen bidez Elgoibarko Nazioarteko Juan Mugertza Krosaren LXVIII edizioa Mintxeta A.T. batzordeak eskerrak eman nahi dizkie nola edo hala euren laguntza eskaini duten erakunde eta enpresa guztiei. Izan ere, haien eskuzabaltsunari esker, berebiziko arrakasta izan zuen

2011. urteko urtarrilaren 23an jokatu zen krosak.

Era berean, eskerrak eman nahi dizkiogu Elgoibarko herriari; alde batetik, ekitaldi hori antolatzerako orduan emandako laguntzagatik, eta bestetik, gure herrira kroseau parte hartzeko asmotan etorri ziren atleta guztiei egindako harrera bero eta adeitsuagatik.

Horregatik guztiagatik, Elgoibarko herriaren izena, aste betez, mundu osoko kirolaren ikuspuntuari egon da, hedabideak Elgoibarren zer gertatzen ari zen adi egon baitira.

Krosa herriarena da, eta herriak maitatzen jarraituko duela espero dugu. Edizio honetan ere, Gipuzkoako krosik onena izan gara; eta antolatetari eta kirol arloari dagokionean, estatuko hoberenetarikoa.

Hortaz, lanean jarraituko dugu, datorren urtea ere, aurtengoa bezain ona edo hobea izan dadin. Horrela bada, Mintxetan ikusiko dugu elkar, 2012. urteko urtarilean. Mila esker.

Mintxeta Atletismo Taldea ©





**Joanes  
Rodriguez**

Aurreko  
asteen Angelek  
eta Andresek dan-  
tzan jarri zituzten letrak  
hartu, eta abesti berdinaren in-  
guruan dantzan arituko naiz neu ere,


baina instrumentu ezberdinak erabiliz. Haiek adinean eta bizipe-  
netan oinarritutako doinu melankolikoak; guk, berriz, perkusioan eta  
erritmo bizietan inspiratutako konpas biziak.

**“Oinarriak gaizki eraikitzen direnean,  
etorkizuna ez da oparoegia izaten”**

“Ez ezta eta ezta ere ezen” garaian (Ez ikasi, ez lan eta ezta txortan  
egin ere) euskal gazteok erronka makalak dauzkagu parean; langabezia,  
kapitalismoa, bizitzaren erritmo beldurgarria... zein izan beharko litzateke  
gure jarrera? Nola eragin? Nola aldatu? Hezkuntza sistemak eta gurasoek  
gazteei errua leporatzen dieten bitartean, askok eta askok ez dute bere  
gain hartzen hartu beharko luketen ardura, eta noski, oinarriak gaizki erai-  
kitzen direnean, etorkizuna ez da oparoegia izaten. Udaletxeetako, diputa-  
zioko, unibertsitateetako... burokrazia prozesuetan galduta, ez dugu  
gehiegi asmatzen gure egon ezak akzioetan islatzen (non islatzearen falta  
latza ere badaukagulako; hau da, eredu falta).

Etorkizuna gazte garbi eta leialei utzi behar zaiela zioen Angelek. Hala  
ere, gazte hauetako askok, gehienetan, badaukagu nagusiagoen aurreiri-  
tzi antzuetan oinarritu eta ikasteko beharra; laburbilduz, gazteok oro har  
beltzak edo zuriak gara, eta etorkizuna gris eskala ikustean datza, itxaro-  
penez beteriko gris ezberdinez osatutako piano teklatu luze amaiezin bat.

Zer uste duzu Maialen, gu ere bagara gai serio aritzeko? Dantzatuko  
dugu? taZEBAEz?



**Maialen  
Arnedo**

Hainbatek kontrakoa pentsatu arren, bai,  
bagara gai serio aritzeko, Joanes. Zenbat al-  
diz entzungo ote genuen “Gaur egungo gazte-  
ak ...” eta oraindik ere sarritan entzungo dugu-  
lakoan nago. Egunduan munduan gira-bueltaka dabil-  
tzan arazoaren errudunak garela esango dute ba-  
tzuek, beste batzuek kexatu baino ez garela egiten,  
munduaren kontra goazela nahi eta ezinean. Eta ba-  
tzueta arrazoi izango dute, ez baikara perfektuak.

Baina zure ideia bat hartu eta honi buelta eman ez esango  
dut kolore ezberdinetako gazteak gaudela munduan: gorriak, more-  
ak, urdinak ... bakoitza mundu batekoa eta mundu berekoa, era be-  
rean. Ezberdin jokatzeko dugu guztiok, bakoitzak pentsatzen edo  
sentitzen duenaren arabera. Edo ez? Zeuk ondo esan duzun mo-  
duan, askok datorrena datorren bezala onartzen dute, eta nahiz eta  
amorrua sentitu gizartean gertatzen diren bidegabekeriaren aurrean,  
horiek onartu egiten ditugu arazoari aurre egin beharrean.

**“Onartezina den zerbait ikusiz gero,  
gazteok altxatu egin behar gara”**

Gauzak ondo pentsatzearen aldekoa naiz ni. Gertatzen denari  
buelta pare bat eman eta benetako zentzua aurkitzearen aldekoa,  
gauzak ez baitira beti diruditen bezalakoak. Berba asko egiten da,  
baina hitzak analizatu eta testuinguruan jarri behar dira. Eta behin  
hori eginda, onartezina iruditzen zaigun zerbaitekin topo eginez ge-  
ro, gazteok altxatu eta ekin egin behar diogu. Bide horretan segu-  
ruekin, nagusiagoek markatutako bideari jarraituko diogu, asko bai-  
taukagu beraiegatik ikasteko, baina geuk ere gure aztarna utzi be-  
har dugu.

Ideia polita, deigarria, baina gazteok pentsatzen duguna eta  
sentitzen duguna adierazteko askatasunik izan ezean jai daukagu!



ESKERTZA

**LORENZO JUARISTI AROSTEGI**

“Argin”

2011ko urtarrilaren 26an hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## Bernardo Ezenarro enpresa Azkoitira eramango dute, eta Estarta kooperatiba Danobaten sartu da

Azkoitiko Oinartxo industriagunera eramango dute Bernardo Ezenarro enpresa

**E**lgoibartik Azkoitiko industriagunera mugituko da Bernardo Ezenarro pintura enpresa. Hala hitzartu zuten Ezenarro enpresako gerenteak eta Azkoitia lantzen sozietate publikoak, joan den abenduaren 22an. Hazi nahiak berak baino gehiago "gaur egungo produkzio sistemetara hobeto moldatzen diren instalakuntzen beharrak" ekarri du Bernardo Ezenarro enpresa Azkoitira lekuz aldatzea.

Orain bost edo sei bat urte ekin zioten enpresako arduradunek kokagune aproposago baten bila, Sallobente-Ermuaranen eta Lerungo industriaguneetan dauzkaten instalazioak txiki gelditu zitzaizkienean. Azkoitin topatu zuten leku egokia, 2008an. Izan ere, Afer eraikuntza enpresak Oinartxo industriagunean egin behar zuen pisu prefabrikatuak eraikitzeako enpresaren proiektua [1.100 laguni lana emango ziona] bertan behera geratu zen krisi ekonomikoaren ondorioz. Eta hain justu ere, Afer proiektuak

lagatako lur sail hori hartuko du Bernardo Ezenarrok. Elgoibarko Udalak ahalgina egin du enpresari eusteko, eta Albitxuri industriagunea handitzea ere eskaini zion, baina enpresako arduradunek lekuz aldatzeko erabakia hartu dute.

### Estarta Danobaten integratu da

Bi kooperatibetako Batzar Orokorrek Estarta Danobaten integratzea erabaki berri dute, "merkatuan lehiatzeko duten ahalmena areagotzeko". Horrenbestez, enpresa integrazioaren prozesua itxi dute, dimentsioa handitu eta merkatu globalean lehiarako ahalmena hobetzeko helburuarekin. Estartak arzteko makina zentrorik gabeak fabrikatzen ditu, eta 1996. urtean sartu zen Danobat Taldean. DanobatGroup hainbat markak osatutako taldea izatetik enpresa taldea izatera igaro da, eta markarik ospetsuenak bultzatu dituzte: Danobat eta Soraluce. Homegeneiza-



tzeko eta integratzeko ahalegin horri esker, orain DanobatGroupek ikuspegi bateratua helarazten die bezeroei eta merkatuari, eta, gainera, erreminta makinaren munduko ekoizle nagusien rankingean 30. postuan dago.

## Larraitz Uranga sailkatu da Madrilen jokatu den Spainskills lehiaketarako



Larraitz Uranga eta Eneko An-sola IMHko ikasleak saritu dituzte Euskoskills Euskadiko lanbide heziketako txapelketan. Fresatzeko proban, urrea jaso zuen Larraitz Urangak, eta bera izango da Euskal Herriko ordezkaria apirilaren 4an Madrilen jokatu den Spainskills lehiaketan. 20 urte ditu Larraitz Urangak, eta Larraskandakoa da. IMHko Ikasi eta Lan programako ikaslea da, ikasketak eta enpresako lana batzen dituen programako ikaslea. Argazkian saritutako gazte guztiak ageri dira, agintariekin eta Euskoskillseko antolatzaileekin. Kamiseta berdeduna da Larraitz Uranga.

## Pertsonaia **Pako Iriondo**



Sariak pilatu eta pilatu ari da Pako Iriondo, Euskal Herriko Mendi Federazioko ohorezko presidentea. Espainiako Kirol Batzorde Nazionalak urrezko domina eman berri dio, eta Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioaren omenaldia ere jaso du federazioaren gidaritzaz estreinak hartu zuenetik 40 urte beteko direla eta –1971ko abenduaren 19an izendatu zuten presidente–. Arrastoa laga du Pako Iriondok, eta hainbeste urtean egindako lanaren uzta jasotzen ari da orain [Elgoibarko Udalak ere joan den ekainean egin zion omenaldia]. Joan zen astean elkarrizketa egin zioten BERRIA egunkarian, Nafarroako Mendizaletasunaren II. Festan jaso zuen omenaldiaren harira, eta aste honetan, Euskadi Irratiko Faktoria sailean elkarrizketatu dute.

## Irudia **Igogailua**

Bide onetik doaz osasun zentroa eta San Roke auzoa batuko dituen igogailuaren obrak. Joan zen astean jarri zizkioten kanpoaldeko kristalak, eta luze ez dela erabiltzeko moduan egongo da. Abenduan, bestalde, 22 metroko pasabidea kokatu zuten trenbide gainean, Bernardo Ezenarro kaletik San Roke auzora pasatzeko. Igogailuak hamabost metroko altuera desberdintasuna gainditzen lagunduko du, eta hogeit lagunentzako lekua izango du (gehienez 1.500 kiloko zama eraman ahal izango du).



## **1977an jaiotakoen kinto bazkaria, martxoaren 26an**

1977. urtean jaiotakoek kinto bazkaria egingo dute martxoaren 26an. Bazkaritara joan nahi duenak, baina, 50 euro sartu beharko ditu Kutxaren ondorengo kontu korrante zenbaki honetan: 2101 0036 62 0012764338. Martxoaren 26an, 12:30ean batuko dira Madalako parkean, eta argazkia atera ostean, bazkaritara joango dira.

## **Gazte Informazio Gunea martxan da berriz ere**

Elgoibarko Gazteria Sailak urritik etenda egon den gazteentzako informazio zerbitzua martxan jarri du berriz. Udaletxean emango dute zerbitzu hori, martitzen eta eguenean, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

## **PPk herritarren ekarpenak jasoko ditu, hauteskunde programa prestatzeko**

Elgoibarko PPK herritarren iritzia jaso nahi ditu, ekarpen horiekin hauteskunde programa eta Gipuzkoako Batzar Orokorretarako programa osatzeko. "Elgoibarko alderdi popularrarentzat oso garrantzitsua da herritarren kezka eta iritzia jasotzea, hauteskunde programan herria ondoen ezagutzen dutenen beharrak jaso ahal izateko", dio hitzez hitz PPreh oharrak. Ekarpenean bat egin nahi dutenek PPreh webgunearen bidez egin dezakete: [www.ppelgoibar.com](http://www.ppelgoibar.com)

## **500 jostailu bildu dituzte Mendaron Gabonetako kanpainaren barruan**

Elkartasuna, lankidetzaz, gizartearekiko ardura eta jostailuen berrerabilpena sustatzeko, jostailu biltzea kanpaina hasi zuten Gabonetan Mendaroko Udalak, Gurutze Gorriak eta Mendaroko ikastolak, eta guztira, 500 jostailu bildu dituzte. Jostailu horiek 12 urtetik beherako seme-alabak dauzkaten eta baliabide mugatuak dituzten familiei banatu dizkiete.

HILETA ZIBILAK

# AZKEN AGURRERAKO BESTE AUKERA BAT

Gizartea plurala den kontzientzia zabalduz doa, eta laikotasun hitzak oihartzun handia hartu du azken urteotan. Ezkontza zibilak, esaterako, nabarmen ugaritu dira, baina, aldiz, hileta zibilekin ez da gauza bera gertatu. Batetik, erlijioarekiko loturak eta tradizioak indar handia dutelako oraindik gure artean, eta bestetik, akonfesionaltasun eta laikotasun hitzak asko zabaldu diren arren, erakunde publikoek bide horretan eman dituzten pausoak ez direlako horren nabarmenak izan.

Ainara Argoitia



**G**ero eta gehiago dira hileta zibilekiko interesa agertzen duten herritarrak, baina edozelan ere, datuek erakusten dute Elgoibarren eta Mendaron gutxiengoa direla azken agurra elizatik pasatu gabe egitea erabakitzen dutenak. Juan Mari Uranga Bake epaileak jakinarazi duenez, Elgoibarren hileta zibil bakarra egin da azkeneko hiru urteotan, eta Mendaron, berriz, hamalau urtean ez da bakar bat ere egin. Bestelakoa da Eibarko kasua. Izan ere, Eibarren, urtean hogeita hamar bat hileta zibil egiten dira batez beste. Eibarko kasua, hala ere, “berezia” dela dio Urangak, eta hango errealitatea oso dela ezberdina Debabarrenako gainerako herrietakoarekin alderatuta. “Gure eskualdean oso tradizionalak gara. Gehiegi sinistu ez arren, hileta gehienak Elizan egiten dira, ohituraz-edo. Eibarkoa beste kontu bat da, aparteko kontu bat gure inguru honetan”.

Tradizioa eta hileta zibilak egiteko leku jakinik ez egotea dira Urangaren ustez jendeak

elizara jotzeko arrazoi nagusiak. “Hildakoa oso ezaguna denean, zaila da azken agur jendetsua egiteko adinako lekurik topatzea eliza batean ez bada”, esan du horren harira. Elgoibarren egin diren hileta zibil gutxiak beilatokian egin dira, eta garbi dago gela horietan ezin dela jende askorik batu. “Halakotan, hildakoaren senide edo lagunak batek idatzi bat irakurtzen du hildakoaren omenez”.

## Hiru urtean hileta zibil bakarra egin da Elgoibarren

Garai batean, beilatokiak zabaldu aurretik, hilerri atarian agurtzen zituzten senide eta lagunak sinestunak ez zirenek, baina hura ere ez da hildakoa duintasunez agurtzeko le-

kurik egokiena, askoren ustez. Hala, gero eta gehiago dira herrian hileta zibilak egiteko areto edo leku jakin bat atontzeko eskatzen duten herritarrak. Hala ere, legez Udalak ez daude derrigortuta. “Legeak ezkontza zibilak egiteko eskumena aitortzen digu, eta horregatik osoko bilkurak egiteko aretoa jartzen dugu guk ezkontza zibiletarako, baina legeak ez dio ezer hiletan inguruan”, azaldu du Irupe Berasaluze Mendaroko alkateak. Gauza bera esan du Elgoibarko Udaleko Ongizate Sailak. “Hilerriaren kudeaketaren ardura du bakarrik Udalak”. Hala ere, zehaztu dute herritarren batek herriko eraikin publikoren batean egin nahiko balu hileta zibila eskaera hori udaletxera bideratzea besterik ez lukeela izango, eta gero Udalak erabakiko lukeela posible den edo ez.

Hileta edonon eginda ere, Elgoibarko eta Mendaroko hilerrietan ez da bereizketarik egiten elizatik pasatu direnen eta ez direnen artean. Bereizketa familiek egiten dute, hilotan jartzen dituzten ikurrekin.



**Eneko Andueza**

**Eibarko hirigintza zinegotzia eta 'apaiz laikoa'**

**“Eibarren aspaldikoa da hileta zibilen kontua, Errepublika bera baino aurreragokoa”**

#### **Noizkoa da Eibarren hileta zibilen tradizioa?**

Elkarte sozialistak eta liberalak sortu ahala hasi ziren ekitaldi zibilen bidez hildako militanteak agurtzen. Aspaldikoa da beraz kontua, Errepublika bera baino aurreragokoa. Esan behar da, gainera, diktadurak ere ez zuela eten usadio hori. Erdi ezkutuan egiten ziren hileta zibilak diktadura garaian, baina egin egiten ziren. Benigno Baskaran zen orduko apaiz laikoa, eta badakit kontu handiz ibili behar izaten zuela, entzuleen artean txibatoak ere izaten zirelako. Beningo Baskaranek aitari hartu zion lekukoa, Martzelino Baskarani. Errepublika aurretik eta Errepublika garaian ere bera izan zen Eibarko apaiz laikoa.

#### **Apaiz laikoa diozu. Ez al da kontraesan bat hori?**

Bai, handia. Baina Eibarren apaiz laikoa esan izan zaio beti.

#### **Eibarren Udalak eskaintzen duen zerbitzua al da hileta zibilena?**

Ez, ez da Udalarena, PSE-EE alderdiarena baizik, baina hala ere, beste alderdi batzuetakoen nahiz afiliatu gabeko herritar askoren hiletak ere egiten ditugu. Egia da, hala ere, udal langileek jartzen dutela megafonia, eta eurek laguntzen dutela agur ekitaldia antolatzen ere. Hileta zibilena sozialismoari eta komunismoari oso lotutako tradizioa izan da urte askoan Eibarren, eta modu naturalean egin izan dira. Udaletxe askotatik deitzen digute guri hileta zerbitzuen gaineko araudia bidaltzeko esanez, baina guk geuk ez daukagu ezer araututa. Betidanik egin den zerbait da, urte askotako tradizioa, eta usadio horri eusten diogu.

#### **Zer dio araudiak? Udalak behartuta daude ezkontza zibilen kasuan moduan hileta zibilak egitera?**

Ez, behartuta ez daude. Nik uste dut, hala ere, ardua hori hartu beharko luketela, gero eta gehiago direlako eskatzen dutenak, baina behartuta ez daude. Herri askotan araudi bat atera dute, hileta zibilak egitekotan non eta zelan egin behar diren zehazteko, baina ez dago Eibarren besteko tradiziorik. Eibarren azkeneko bi hilabeteetan zortzi hileta zibil egin dira, eta urtean 30 baino gehiago izaten dira, batez beste.

#### **Hildakoaren senideak jartzen dira zuzenean zuekin harremanetan?**

Ez, hileta zerbitzuetakoek jotzen dute guregana, eta guk brigadakoiei pasatzen diegu gero abisua, megafonia eta gainerakoak jarri ditzaten. Ekitaldia gorpua han bertan dela egin behar bada, berriz, udaltzainei ere pasatzen diegu abisua, bidea zabalteko. Alderdi barruan neu naiz orain hileta zerbitzuak zuzentzeko ardura-duna, eta halakoetan, hileta aurretik senideekin biltzen naiz, ekitaldia prestatzeko.

#### **Noiz gidatu zenuen lehenengo hileta zibila?**

31 urte dauzkat orain, eta orain dela sei-zazpi bat urte hasi nintzen, 23 urterekin-edo. Miguel de los Toyos gaurko alkateak zuzentzen zituen orduan hileta zibilak, eta haren ordezkoi moduan hasi nintzen ni, harik eta orain bost bat urte ardua hori neri eman zidaten arte.

#### **Nolakoak izaten dira normalean?**

Hileta zibilak omenaldi antzekoak izaten dira. Heriotzari buruz barik hildakoaren bizitzari buruz egiten dugu berba, omenaldirik onena hil den pertsona horren lana eta haren konpromisoa gorai-patzea delako, dela konpromiso politikoa edo beste edozelakoa. Gure alderdiokoen eta Ezker Batuko militanteen kasuan ekitaldi bukaeran Internazionala jartzen dugu normalean, baina bestelakoen hiletak era askotakoak izaten dira. Labur esateko, ez da gidoi jakin bat jarraitzen, eta kartara antolatutako omenaldiak izaten dira. Hildakoaren afizioak eta gustuak hartzen dira kontuan hileta antolatzeke orduan. Azkeneko hiletetako bat, adibidez, gazte batena izan zen, eta haren koadrilakoek eta lagunak zuzendu zuten ekitaldia.

#### **Garai batean hilerriko atarian egiten ziren Eibarren hileta zibilak. Orain, berriz, Txantxazelaiko kioskoan, Untzaga plazaren gainean dagoen parkeko kioskoan. Noiz eta zergaitik erabaki zen lekua aldatzea?**

Txantxazelai berriztu zenean erabaki zen hilerri ataritik hara eramatea. Hilerri ataria ez zen lekurik onena. Batetik, erdi klandestinatean ari ginela ematen zuelako, eta bestetik, lekua bera ez zelako egokiena, trafikoari dagokionean. Hileta gehienak iluntzetan egiten ziren, eta trafiko arazo handiak izaten ziren han inguruan pilotzen zen jendetzagatik. Era berean, ez zen itxurosoa jendea hilerriko eskilaretan pilotzea, eta arriskutsua ere bazen. Txantxazelai-ko parkea berritu genuenean, Udalak erabaki zuen aurrerantzean han bertan egingo zirela hileta zerbitzuak, musika bandak kontzertuak emateko erabiltzen duen kioskoan. Hartara, ez dira trafiko arazoak sortzen, eta gainera, kioskoaren aurrean harmailak daudenez, jendearentzako erosoago ere bada.

#### **Hilerrian bereizten dira elizatik pasatu direnak eta pasatu gabeak?**

Garai batean, bai. Hilerri barruan badago hilerri zibil txiki bat, eta han lurperatzen zituzten. Hilerri zibil horretako hilobietan ez da gurutze bakar bat ere ikusten. Gaur egun, aldatzen ari da, baina. Hilerri zibiletik kanpora ere lurperatzen dira gorpuk. Lehen lekuak bereizten zituen, eta orain, berriz, familiak hilobian jartzen dituen ikurrek.

## Erretratu zaharra



1970

1970. urteko abuztuan ateratako argazkia da herritar batek BARREnera ekarri duen hau, eta erretratuan azaltzen diren lagun horiek guztiak Arrieta familiakoak dira. Urte hartan Nafarroa aldera joan ziren oporretan, eta Urdiaingo igerilekuetan atera zuten erretratu. Ikus dezagun zeintzuk diren. **Atzean, zutik:** Lucia Arrieta, Elisabeth Zuazubizkar eta Sabina Arrieta. **Erdian:** Aitor Zabaleta, Jose Zuazubizkar eta Rosario Arrieta. **Aurrean:** Miriam Iriondo, Karmen Iriondo, Elena eta Kristina Zuazubizkar eta Joseba Zabaleta.

PREST  
  
 MONDRAGON  
 UNIBERTSITATEA

902 110 436

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

# ATE IREKIAK

**Goi Eskola Politeknikoa**

**ORDIZIA OTSAILAK 3** osteguna, 17:30

**ARRASATE OTSAILAK 5** larunbata, 10:30

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea**

**ESKORIATZA OTSAILAK 3** osteguna, 18:00

**Gastronomia Zientzien Fakultatea**

**DONOSTIA URTARRILAK 29**

larunbata, 10:30 Miramongo Parke Teknologikoko  
erakin nagusia

ARETO  
NAGUSIAN

*Etanri aurretik  
izena eman!*



## Uxue Alberdik Beterriko Bertso Txapelketako finala jokatu du

Otsailaren 12an izango da finala Billabonan



Urtarrilaren 21ean hasi zen Beterriko Bertso Txapelketa, eta Uxue Alberdik finalerako sailkatzea lortu zuen, *Donelutxi* izeneko taldearekin. Uxue Alberdik, Ainhoa Agirreazaldegik eta Onintza Enbeitak osatzen dute taldea. *Agatedeun* taldea izan zuten aurrean, Alaia Martin, Miren Amuriza eta Jone Uriá bertsolariak osatua. Antolatzaileek esandakoaren arabera, bi taldeek "saio alai eta umoretsua" eskaini zuten, eta giro bikaina izan zen Andoaingo Ontza aretoan. Argazkian ikusten

den bezala, *Donelutxi* taldeak folklorika talde bat irudikatu zuen agurrean.

Saioaren bukaeran 76 lagunek eman zuen botua, eta haietarik 53k *Donelutxi* taldearen alde egin zuen. Hau da, Uxue Alberdik, Ainhoa Agirreazaldegik eta Onintza Enbeitak osaturiko taldearen alde.

Urtarrilaren 28an Asteasun jokatu da bigarren kanporaketa, eta handik irtingo da bigarren talde finalista. Azken saioa, otsailaren 12an jokatu dute, Billabonan.

## Ludotekak ez du zerbitzua adinaren arabera banatu



Urtarrilaren 10etik aurrera, ludotekak lehenengo eredu berreskuratu du, eta ordutegia ez dute adin banatu. Hortaz, astelehenetik ostiralera egongo da zabalik ludoteka, 16:30etik 19:30era, 5-12 urteko haur guztientzat.

Bestalde, bazkidetza kuota igo egingo dute, eta ondorengoak dira prezio berriak: ikasurte guztia, 45 euro, Gabonetako oporretatik aurrera, 30 euro, eta Aste Santuko oporretatik ikasurte amaierara artekoa 15 euro. Dena dela, urte osoan zehar dago bazkide egiteko aukera. Informazio gehiago eskuratzeko, Udaleko Gazteria Sailera jo daitezke (943 741 050).

## Santa Agedaren omenezko koruetan parte hartzeko deia

Elgoibarko Etxegiña taldekoak otsailaren 5ean irtingo dira santa eskean. 9:00etan batuko dira bolatokiari, eta bi taldetan banatuta, koplakantari arituko dira eguerdi aldera arte. Otsailaren 1ean eta 3an egingo dituzte entseguak, 20:00etan, Kultur Etxeko hitzaldi gelan, eta herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte parte hartzera. Mendaron ere, egun berean irtingo dira herritarrek koplakantuan. 8:30ean elkartuko dira udaletxe aurrean, eta hiru taldetan banatuko dira herriko bazter guztietara iritsi ahal izateko.

Elgoibarko Izarrak bestalde, dena prest dauka Santa Ageda bezperan (otsailak 4), baserri baserri koplakantuan jarduteko. 30 lagun inguru irtingo dira bi taldetan banatuta, eta ahalik eta baserri gehienak bisitatuko dituzte. Aiestia-San Migel auzoko elkartearen egingo dute afaria, eguna amaitzeko.

## Ongarri zineklubak lau film eskainiko ditu otsailaren

Ongarri zineklubak lau filmako zikloa antolatu du otsailerako. Datorren egunean, hilaren 3an, *Abel* pelikula mexikarra emango dute. Diego Luna aktoreak zuzendutako estreinako filma da, eta Donostiako zinemaldian *Horizontes Lejanos* saila pelikula honekin zabalduta. Abel, 9 urteko umea da istorioaren ardatza: umeak uko egiten dio mintzatzeari, eta buruko osasuna artatzeko zentro batean sartzen dute. Amak medikua kontzertitzen du, esanez astebete anai-areekin zentrotik kanpo igarotzeak on egingo diola. Ama ezkongabea izaki, ez da aitarik etxean, eta ustekabean, Abelek familia batzea lortuko duen aitaren rola jokatu du. Hurrengo hiru filmak *Tulpay* (Kazajistan), *Pan negro* (Katalunia) eta *Los Caballos de Genghis Khan* (Mongolia) izango dira. Pelikulak egunen artean izango dira, 21:30etik aurrera, Herriko Antzokian.




# KOMON ETA MOREIRA GARAILE, MUGERTZA KROSEAN

3.800 IKUSLE INGURU BATU ZIREN ATLETISMOAREN JAIAN

Lasterketa irabazteko faborito nagusia zen Leonard Komon kenyarra, eta aurreikuspena bete egin zen domekan: Komonek hirugarren garaipena eskuratu zuen Mintxetako pistan, 32:04 denborarekin. Leiha gogorra izan zuen Micah Kogok Komon korrikalari kenyarrarekin, eta erritmo bizia jarri zuten korrikalari afrikarrek. Sergey Ledid ukraniarra gogotik saiatu zen afrikarren erritmoari eusten, eta zenbait unetan lortu zuen korrikalari kenyarren bizkarra gertutik ikustea, baina ezin izan zien aurrea hartu. Emakumezkoetan, aldiz, ez ziren aurreikuspenak bete, eta Sara Moreira portugaldarrak irabazi zuen lasterketa, 22:08 denborarekin. Diana Martin eta Gema Barrachina espainiarrak sailkatu ziren bigarren eta hirugarren. Giroa hotz zegoen arren, korrikalariak ez zuten berotasun faltarik izan, Mintxetan bildutako 3.800 ikusleek gogoz animatu zituzten-eta. Sailkapenak, argazkiak eta bideoa ikusteko: [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net)

Lehia polita eskaini zuten atleta gaztetxoek.



Irribarrea eta apaltasuna, txapelduen baten ikurrak.




Ahaleginak beti ematen duen...



Ikusleak zur eta lur laga zituen Margarek Muriukik. Izan ere, hanka hutsik egin zuen korrika. Antolatzaileak ere harrituta laga zituen atleta kenyarrak, uste baino apalago ibili zelako. (Munduko azken kros txapelketan seigarren postuan sailkatu zen).



Alice Wrightek irabazi zuen M...







Leonard Komon, helmugan. 32:05ko denbora egin zuen kenyararak.



Lebid ukraniarrak bakarrik eutsi zion afrikarren (Kogo eta Komon) erritmoari.

uitua; batzuetan garaipena ere bai.



Ana Dulce Felix eta Sara Moreira portugaldarrak aldapan gora tiraka.



Mintxetako aldapak; podiumeko koskak igotzeko galbahean.

mo Wolde Saria emakumezkoetan.



Sara Moreira irabazlearen helmugaratzea. Atzetik, Diana Martin.



Joxe Gurrutxaga moduko boluntario eta laguntzaile asko behar ditu Mugertza krosak.



Mutilak, indarrez lepo korrikaldiaren hasieran.



Bi parte hartzaile, hustuta, dena eman eta gero.



"Ez nauzu harrapatuko" pentsatuko zuen lasterkari honek, beharbada, azkeneko metroetan.



Jose Antonio Ruiz elgoibartarra, jendez betetako harmailen aurretik pasatzen.

Begirada eta keinuek berba egiten dutenean soberan daude hitzak.



Gurutze Gorriko lagunak arduratu ziren bere onera bueltatzeko laguntza behar izan zuten atletez.

# Nagusietan, Loiolak jantzi zuen txapela San Anton pilota txapelketan

Haritz Arribillaga nagusitu zen promesetan

**S**an Anton pilota txapelketako finala irabazi zuen joan zen barixakuan Eneko Loiolak. Bosgarren finala zuen sanmigeldarrak, eta oraingoan ez zion txapelak ihes egin. Uriarte eta biek 22 eta 13 irabazi zieten Atxotegi eta Jauregiri. Partida amaitu ondoren, erretiroa "lasai" hartu dezakeela aitortu zuen atzelari elgoibartarrak.

Finala jokatu zuten lau pilotariak elkar oso ondo ezagutzen dutela erakutsi zuten. Partida gogorra eta lehiatua izan zen hasieratik, eta hamabigarren tantora arte antzera batean ibili ziren markagailuan. Partidaren bigarren zatian, bizpahiru tantoko aldea hartu zuten Loiolak eta Uriartek, eta tantokak bata bestearen atzetik egin zituzten. Lagunak taldekoek Loiolari eman zioten finalako pilotari onenaren saria.

## Promesetan, txapela Arribillagak

Promesetan, Haritz Arribillaga elgoi-



bartarrak jantzi zuen txapela. Murgiondo eta biek, eta 22-15 irabazi zioten Mugu-ruza-Rezusta bikoteari. Iazko finalean bezala, galtzen hasi zen elgoibartarra, eta konturatu orduko 9-1 ziren aurretik aurkariak. Beraien pilota berreskuratu zutenean, baina, markagailuari buelta ematea lortu zuten.

## Elgoibarko 11 eskiatzailek jokatu dute Altitoy eski proba asteburuan



Elgoibarko 11 eskiatzailek hartuko dute parte Altitoy eski proban, Morkaikoren izenean. Datorren asteburuan jokatu da eski lasterketa ezaguna, Luz Saint Sauver inguruan.

Joan zen asteburuan, bestalde, Morkaikoko lau eskiatzailek Munduko Koparako puntugarria den eski txapelketan hartu zuten parte, Gavarnien. Zapatuan, Arkaitz Iruretak eta Iñigo Larizek jokatu zuten proba, eta eurek esandakoaren arabera, "lan polita" egin zuten. Domekako proban Iker Leonardo eta Aitor Salaberria ere aritu ziren. Eguraldi ezin hobea egin zuen, eta lasterketaren dotorezia nabarmendu zuten lau lasterkariak.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Haundi 1 - Zarautz 0 (3. maila)  
Elgoibar 4 - Mondragon 1 (Erreg. Pref)  
Urola 3 - Elgoibar 1 (Ohorezko jub.)  
Elgoibar 0 - Lengokok 2 (Kad. A)  
Elgoibar 1 - Tolosa 2 (Ohorezko inf.)  
Ostadar 0 - Elgoibar 4 (Inf. Txiki)  
Elgoibar 1 - Zumaiako 7 (Aleb.)

### ESKU PILOTA

#### Udaberri txapelketa

Lagunak 16 - Lagunak 22 (Nag.)  
Aretxabaleta 13 - Lagunak 22 (2. mailako nag.)  
Lagunak 22 - Añorga 4 (1. mailako jub.)  
Aretxabaleta 13 - Lagunak 22 (2. mailako Kad.)

#### Pala

Mundarro 18 - Lagunak 25 (Nag.)  
Altzotarrak 25 - Lagunak 12 (Nag.)

### ARETO FUTBOLA

Concepto Createch Elg. 6 - Orioko 4 (1. maila)  
King-Kong Elg. 8 - Txanpaka 3 (Jub.)

### XAKE

Gros 1 - Mekatar Elgoibar 3

### ESKUBALOAIA

Tecnifuelle Elg. 25 - Askartza 17 (Sen. neska)  
Grupo Elbar Elg. 25 - Usurbil 15 (Jub. neska)  
Lauko Elg. 25 - Usurbil 20 (Kad. neska)  
Alkorta Elg. 32 - Egia 33 (Sen. mut.)  
Beristain Elg. 25 - Urola 25 (Jub. mut.)  
Ordizia 13 - IMH Elg. 25 (Kad. neska)  
Tolosa 39 - Txarriduna Elg. 33 (Jub. mut.)  
Arrate B 34 - Aterpe Elg. 8 (Inf. mut.)  
Ikus Elg. 15 - Aiala 33 (Inf. neska)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

#### Zapatua, 29

10:30 Elgoibar - Zestoa (Kad B)  
12:15 Elgoibar - Lagun Onak (Inf. Txiki)  
16:30 Elgoibar - Union Txiki (Ohorezko jub.)

### ESKUBALOAIA (Kiroldegian)

#### Zapatua, 29

12:00 Astigarrá Elg. - Arrate (Inf. neska)  
16:00 IMH Elg. - Pulpo (Kad. neska)  
17:30 Txarriduna Elg. - Zarautz (Kad. neska)  
19:00 Tecnifuelle Elg. - San Adrian (Sen. neska)

#### Domeka, 30

10:00 Elgoibar - Arrate (Aleb. mut.)  
11:15 Bankoa Elg. - Arrate B (Inf. mut.)  
12:30 Aterpe Elg. - Aloña (Inf. mut.)

### XAKE

#### Zapatua, 29

16:00 Mekatar Elgoibar - Zaleak Bergara

### ESKU PILOTA

#### Barxakua, 28

21:15 Lagunak - Zestoa (Nag.)  
22:00 Lagunak - Arrasate (Nag.)  
22:30 Lagunak - Goierri (Pala)

**LANA**

**ESKAERA**

- Gizona eskaintzen da sukalde laguntzaile, igeltsero, banatzaile edo adinekoak zaintzeko. ☎ **638 344 377 / 943 530 579**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. Edozein ordutegi. Esperientzia daukat. ☎ **678 972 690**
- Emakume euskalduna adineko pertsonak zaintzeko prest. Erizain laguntzaile, eta esperientziaduna. Arratsalde, edo pare bat ordutegi. ☎ **685 729 790**
- Neska eskaintzen da ostalaritzan lan egiteko, sukaldean laguntzeko, garbiketa lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko. ☎ **633 671 470 / 943 030 233**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo interna moduan. ☎ **617 981 037**
- Emakume euskalduna garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **687 114 707**
- Nikaraguako bikoteak nagusiak zainduko lituzke. Esperientzia eta erreferentzia oso onak. ☎ **618 089 227**
- Gizona nagusiak zaintzeko edo baserrian lan egiteko prest. Esperientziaduna, eta erreferentzia onekin. ☎ **639 783 593**
- Emakume euskalduna garbiketa lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **626 490 986**
- Emakumea asteburuetan lan egiteko prest. Interna edo orduka. ☎ **646 821 678**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **699 609 190**
- Neska gaztea garbiketa lanak egiteko prest. Egunean pare bat ordutegi. ☎ **697 735 046**

- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. Egun erdiz. ☎ **638 031 555**
- Emakumea lanerako prest: sukalde laguntzaile, garbitzaile, nagusiak zaintzen... ☎ **608 474 923**
- Emakumea lanerako prest: sukalde laguntzaile, garbitzaile, nagusiak zaintzen... ☎ **681 178 842**
- Emakumea lanerako prest: sukalde laguntzaile, garbitzaile, nagusiak zaintzen... ☎ **608 376 387**
- Mutila edozein lan egiteko prest, edozein ordutan. ☎ **649 086 057**
- Emakumea edozein lan egiteko prest: nagusiak edo umeak zaindu, garbiketa lanak... Esperientziaduna. ☎ **678 972 690 / 943 530 795**
- Emakumea edozein lan egiteko prest: nagusiak edo umeak zaindu, garbiketa lanak... ☎ **695 182 457**
- Neska euskalduna adineko pertsonak zaintzeko prest, egunez edo gauez. Klinika laguntzaile tituluarekin. ☎ **646 384 681 / 943 748 209**

**ETXEBIZITZAK**

**ALOKAIRUA ETA SALMENTA**

- Logela alokatzen da, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Lanean ari diren pertsona arduratsuentzat. ☎ **633 671 470 / 943 030 233**
- Pisua hartuko nuke alokairuan, ahal dela hiru logelatakoa. ☎ **652 446 228**
- Etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **685 212 060**
- Etxe apaina alokagai Elgoibarren, erdigunean. Logela bakarra, egongela, terraza txikia. ☎ **660 042 159**
- Etxea salgai. Hiru logela, sukaldea, komuna eta egongela. Berritua eta egoera oso onean. Prezio interesgarria. ☎ **688 658 183**

**PARTIKULARRAK**


- DBHko matematikako klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. ☎ **943 744 206**

**LOKALAK**

- Lokala salgai Santa Klaran. Solairu arteko baxua. Araudia betetzen du. Elkarte gastronomiko edo etxea egiteko aproposa. ☎ **943 744 467 / 607 741 238**

**BESTELAKOAK**

- Mikrouhin labea oparitzen dut. ☎ **943 740 938**
- Katua galdu da Basarten. Urta-rrilaren 6an etxetik ihes egin zuen katu siamesak. Arra da, eta ez du lepokorik. Norbaitek ikusi edo etxean hartu badu, deitu dezala, mesedez. ☎ **679 276 164**



- Inork betaurreko batzuk aurkitu baditu, deitu dezala mesedez. ☎ **943 740 268**

**MERKATU TXIKIKO OHARRA**

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

**Prezioak:**

**Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 12 euro (alokairua), 18 euro (salmenta)**

**Autoak saltzea: 12 euro.**

**Bestelakoak: 6 euro**

Iragarkiari erretratua jarritz gero, bost euro gehiago ordaindu behar dira.



**BARREN** Elgoibartik kanpo jasotzen dutenentzako oharra

2011eko harpidetza kuotak ondorengoak izango dira

- ▶ Euskal Herria eta Espainia: **20,50 €** / Bazkideek: **16,40 €**
- ▶ Europa: **30,75 €** / Bazkideek: **24,60 €**
- ▶ Europatik kanpo: **41,00 €** / Bazkideek: **32,80 €**


Edozein zalantza argitzeko, jarri gurekin harremanetan:  
943 744 112 (Ainhoa) edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)



• Zenbat dira 6+1? **Ion Maiztegi** bete dituenak! Zelako urte pila, ezta? Zorionak potxolo, asko maite zaitugunen partez.



• Zorionak, **Beñat**, igandean 4 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta familiakoen partez, ondo pasa zure eguna.



• Zorionak, **Markel**, igandean 2 urte egingo dituzulako, izeba Miren eta osaba Unairen partez. Patxito handi eta potolo bat.



• Zorionak, **Markel**, bihar 7 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat gurasoen eta arreba Maialenen partez.



• Zorionak, **Sara**, zure bigarren urtebetetzean. Familiakoen eta bereziki, Malen eta Eiderren partez, txokolatezko muxu bat.



• Zorionak, **Aitor**, urtarilaren 4an 9 urte egin zenituelako. Familiako guztien partez.



• Zorionak, **June**, 7 urte egingo dituzulako. Bereziki, amaren eta Lutxoren partez.




• Zorionak, **Landerbo**, hilaren 25ean zure eguna izan zelako. Oso ondo pasa! Muxu potolo bat etxekoan partez.



• Zorionak, **printzesak**, zuen urtebetetzean! Etxekoan partez, patxo potolo bat.



• Zorionak, **Laura eta Miren**, otsailaren 1ean, 11 urte handi egingo dituzuelako. Lagunen, ahizpa Beatrizen eta ahizpa Nagoreren partez.



• Zorionak, **Elene eta Iboni**, Zuen gurasuen partez, muxu handi bana.



• Zorionak, **Esther**, gaur 35... *Inko...* egingo dituzulako! Jainkoak gorde zaitzala! 22:00etan, Aterpen!



• Zorionak, **txikitin!** Igandean bigarren urtebetetzea ospatzeko irrikitan gaude. Lehengusina Nora eta familia osoaren partez

**Erretratu bakarreko agurra: 3 euro. Argazki bikoitza: 5 euro. Hirukoitza: 7 euro. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 euro.**  
 Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. **BARRE**neko bulegora 12:00ak baino lehen, edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.

Banaketa sistema hobetzeko helburuarekin,  
**BARREN** jasotzen duzuenon buzoietan pegatina txiki bat jarri dugu  
 Ez baduzue pegatina jartzerik nahi, esaiguzue lasai (943 744 112). Eskerrik asko!

**BARREN**eko banaketa sistema errazteko behar-beharrezkoa dugu zuen buzoiak pegatinarekin markatzea.

**Mesedez, ez ezazue pegatina kendu buzoitik. Gure banatzaileek eskertuko dute.**

## 28 barixakua

### San Juan Bosco

9:00 Krosa

Mintxetan

10:00 Goitibeherak

Erretxinditik Trenbide kaleraino.

10:15 Tortila lehiaketa

Arreiturre institutoko arkupeetan.

10:45 Sokatira

Kiroldegian.

11:15 Futbito txapelketa

Kiroldegian.

13:00 Antzerkia

Arreiturre institutoko gimnasioan.

## 30 domeka

### Mendi irteera

10:00 Santa Eufemia

Ikastolako gurasoek antolatuta, Santa Eufemiara egingo dute irteera.

## 4 barixakua

### Santa eskea

14:30 Santa eskea baserriz

baserri

Elgoibarko Izarrak antolatuta, baserriz baserri irtengo dira santa eskean. Plaza Handitik irtengo dira.



#### Bazkide izan nahi duzu?

Urtariletik abuztura bitarteko kuota 30 euro.

Familia ugariak,  
%30eko deskontua.  
HH5-LH6ko  
haur guztientzat.

#### Ostiral honetan Mihiluze Lehiaketa gaztelekuan.

18:00etatik aurrera etorri lehiakideak animatzera.  
Nork lortuko du zakua?



**B**  
BARREN  
astekarian  
943 743 704

Jarri ezazu zure publizitatea

#### OKINDEGIA

30 domeka FOTERO

#### FARMAZIAK (24 orduz)

- 28 Zabaleta
- 29 Etxeberria (Errosario)
- 30 Etxeberria (Errosario)
- 31 Ibañez
- 1 Garitaonandia-Bidasolo
- 2 Etxeberria (Santa Ana)
- 3 Fernandez
- 4 Yudego

#### Fernandez

Herriko enparantza 4,  
Garagartza (Mendaro)  
Tel: 943 756 142

Ibañez -Rekalde, 1 (Soraluze)  
Tel: 943 751 638

Zabaleta  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
Tel: 943 751 384

#### ZINEA

#### «Burlesque»

28, barixakua: 22:15  
29, zapatua: 19:00/22:15  
30, domeka: 19:00  
31, astelehena: 21:30



«Burlesque» Zuzendaria: Steve Antin.

Aktoreak: Christina Aguilera, Cher, Kristen Bell, Stanley Tucci, Cam Gigandet, Eric Dane, Alan Cumming. Herrialdea: AEB.  
Urtea: 2010. Iraupena: 100 min

Burlesque hau Christina Aguilera ustezko musikariaren luzimendurako prestatutako jostailua da; hura da protagonista nagusia eta filmak eskaintzeko duen amua. Aguilerearen ondoan, abeslari beteterano

#### «Megamind»

30, domeka: 16:30

#### «Abel» (Ongarri zinekluba)

3, eguena: 21:30

bat, bera ere zineman hainbat saio egindakoa, Cher eternala. Ali Rosek bere sorterritik hiri handira egingen du, abeslari izan nahi baitu. Ailegatzeko dena gauzak ez direla batera errazak ohartuko da, eta, hala ere, bere ametsa betetzeko gogor egingen du lan. Lokal bateko nagusia konbentzitu beharko du, ziur baitago ikuskizunean parte hartuta badela nor erakutsiko duela.

# LAGUNAK KOLTXOI DENDA-TEXTIL HOGAR

▶ **KOLTXOI  
ERAKUSKETA**

▶ **ARMAIRU  
ERAKUSKETA  
BERRIA!**

▶ **GORTINAK  
NEURRIRA!**



Ohe geriatrikoa



San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



Haur hezkuntza



Lehen hezkuntza



Bigarren hezkuntza




Elgoibarko Herri Eskolako Ate Ireki eguna: **Otsailak 5**  
Elgoibar Arreiturre BHIko gurasoentzako bilera irekia  
**otsailaren 2an, 18:30ean Arreiturren**

## AURREMATRIKULAZIOA

2011 - 2012

Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza  
**URTARRILAREN 31tik OTSAILAREN 11ra**



**Elgoibarko Herri Eskola**  
Kalamua, 8  
Tel.: 943 74 08 79  
E-posta: [012777aa@hezkuntza.net](mailto:012777aa@hezkuntza.net)



**baikara**  
Guztiak batera  
Guztiak batera



EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA  
UNIBERTSITATE 466  
IKERKETA SAILA



**Elgoibar Arreiturre BHI**  
San Roke, 11  
Tel.: 943 748 397  
E-posta: [www.elgoibarbhi.net](http://www.elgoibarbhi.net)